

		A1	A2	B1	B2	C1	C2
U L E R M E N A	Entzumena	Hitz ezagunak eta oso oinarriko esaldiak ezagutu ditzaket: niri, nire familiari eta inguruko berehalako gauzei buruz beste pertsonak poliki eta garbi hitz egiten dutenean.	Nirekin zerikusia duten hurbileko gaietan erabiltzen diren esaldiak eta askotan erabiltzen den hiztegia, ezagutu ditzaket (adib., niri eta familiari buruzko informazioa, erosketa, bertako geografia, lana). Mezu eta ohar motz, argi eta soilen ideia nagusia ulertu dezaket.	Egoera ezagunetan aurkitzen diren hizketaldi arrunteko ideia nagusiak ulertu ditzaket: lanean, eskolan, aisialdian, etab. Irrati edo telebistako interes pertsonal edo lanbideko gaietako buruzko programen ideia nagusiak ulertzen ditut, emanaldia nahiko mantsoa eta garbia denean.	Hitzaldi luzeak ulertu eta eztabaida konplexuen ildoak ere jarraitu dezaket, gaia nahiko ezaguna bada. Telebistako albistegiak eta gaurkotatueneko gaietako buruzko programak ulertzen ditut. Dialekto normalean hitz egindako filma gehienak ere ulertzen ditut.	Hitzaldi luzeak ulertu ditzaket, baita oso garbi egituratuak ez dagoenean eta erlazioak zehazki markaturik ez daudenean ere. Telebistako programak eta filmak ahalegin handirik gabe ulertzen ditut.	Ez daukat inongo arazorik ahozko hizkuntza ulertzeko, zuzenean edo emititua, ez eta jatorrizko hiztunaren abiadura ere. Batzuetan azentu desberdinetara ohitu behar izaten dut.
	Irakurmena	Izen eta hitz ezagunak eta esaldi oso soilak ulertu ditzaket, adibidez ohar eta posterretan edo katalogoetan.	Testu oso labur eta soilak irakurri ditzaket. Eguneroko material soiletan aurreikusi daitekeen informazio zehatza aurkitu dezaket, adibidez, iragarpen, prospektu, menu eta ordutegietan, eta eskutitz pertsonal labur eta sinpleak ere ulertu ditzaket.	Eguneroko edo laneko hizkuntzarekin zerikusia duten testuak ulertu ditzaket. Eskutitz pertsonaletan gertaera, sentimendu eta desioen deskribapena ulertu dezaket.	Egileak ikuspuntu zehatza hartzen duen gaur egungo arazoei buruzko artikulua eta txostenak irakurri ditzaket. Prosa literario berria ere ulertu dezaket.	Testu literario eta gertaerei buruzko testu luze eta konplexuak ulertu ditzaket, estilo bereizketak ezagutzen. Artikulu espezializatuak eta argibide teknikoak ulertu ditzaket, nahiz eta nire arlokoak ez izan.	Erraztasunez irakurri ditzaket hizkuntza idatziko modu guztiak, baita idatzien laburpenak, linguistikoki edo egiturari dagokionez testu konplexuak, adibidez, eskuliburuak, artikulua espezializatuak eta obra literarioak.
M I N T Z A M E N A	Ahozko elkar eragina	Modu soilean parte hartu dezaket, betiere beste pertsona esaldiak errepikatu edo polikiago hitz egiteko eta nik esan nahi dudana formulatzen laguntzeko prest badago. Galdera soilak egin eta erantzun ditzaket, berehalako beharren arloan edo gai ezagunei buruzkoak.	Egin behar sinpleetan parte hartu dezaket gai ezagunei buruzko informazio soilak komunikatu behar direnean. Hitzezko trukaketa sozial oso motzak maneiatu ditzaket, nahiz eta normalean ezin dudana dena nire kontura bakarrik ulertu.	Halako hizkuntza hitz egiten den tokira bidaiatzerakoan, egoera gehienei aurre egin diezaiek. Aurretik ezer prestatu gabe sartu naiteke elkarriketan gai ezagunen edo interes pertsonal edo eguneroko gaien inguruan (adib., familia, zaletasunak, lana, bidaiatzea eta gaurkotatueneko gertaerak).	Nahiko jarioetasun eta naturaltasunez parte hartu dezaket elkarrizketetan eta horrek jatorrizko hiztunekin hitz egitea ahalbidetzen du. Testuinguru ezagunetako eztabaidetan parte hartu dezaket nire iritzia emanez.	Jarioetasunez eta naturaltasunez hitz egin dezaket esamoldeen bilaketa nabarmenik gabe. Hizkuntza malgutasun eta eraginkortasunez erabili dezaket gizarteko eta lanerako helburuetarako. Ideia eta iritziak zuzentasunez formulatu ditzaket eta beste solaskideek esandakoari nire ekarpenak egin.	Eztabaidetan inongo arazorik gabe parte hartu eta esamolde eta hizkuntza arruntaren ezagutza maila ona eduki dezaket. Jarioetasunez hitz egin eta xehetasun txikiak adierazi ditzaket. Arazorik badut, atzera itzuli eta zailtasun hori berriro zuhurtasunez egituratu dezaket besteak ez ohartzeko moduan.
	Ahozko Ekoizpena	Esaldi eta lokuzio soilak erabili ditzaket non bizi naizen eta ezagutzen ditudan pertsonak deskribatzeko.	Lokuzio eta esaldi batzuk erabili ditzaket, laburki nire familia, beste pertsonak, bizi baldintzak, izan dudana hezkuntza eta nire lana deskribatzeko.	Esaldiak modu sinplean lotu ditzaket esperientziak eta gertaerak, nire ametsak, desioak eta nahiak deskribatzeko. Iritzi eta planei buruzko arrazoi eta esplikazioak eman ditzaket oso labur. Ipuin bat kontatu edo liburu edo filma baten argudioa kontatu eta nire erreakzioak deskribatu ditzaket.	Nire interesekin zerikusia duten gai askori buruzko deskribapen zehatzak eta argiak eman ditzaket. Gai bati buruzko nire ikuspegia azaldu dezaket, aukera desberdinen abantailak eta eragozpenak emanez.	Azpi-gaiak dituzten gai konplexuak zehaztasunez deskribatu ditzaket, ikuspuntu zehatzak garatuz eta ondorio egokiarekin borobilduz.	Deskribapenak eta argudioak argi eta lasai aurkeztu ditzaket testuinguruarekiko estilo egokian eta egitura logiko eraginkorarekin. Horrek hartzaileei ideia garrantzitsuenak gordetzen eta gogoratzen laguntzen die.
I D A Z M E N A	Idazketa	Postal labur eta soilak idatzi ditzaket, adibidez oporretatik agurtzeko. Eskabideak bete ditzaket nire datuekin, adibidez, nire izena, nazionalitatea eta hotel bateko erregistroa betetzeko.	Berehalako beharrei buruzko ohar eta mezu labur eta soilak idatzi ditzaket. Eskutitz pertsonala idatzi dezaket, adibidez norbaiti egin dunagatik eskertzeko.	Gai ezagunak edo interes pertsonalei buruzko testu sinpleak idatzi ditzaket. Eskutitz pertsonalak idatzi ditzaket esperientzia eta iritziak deskribatuz.	Nire interesekin loturiko hainbat gai buruzko testu zehatz eta argiak idatzi ditzaket. Idazlanak edo txostenak ere idatzi ditzaket, informatuz edo ikuspuntu zehatza emanez. Eskutitzak idatzi ditzaket gertaeren eta esperientzien garrantzi pertsonala nabarmenduz.	Testu argi eta ongi egituratuak idatzi ditzaket ikuspuntuak azalduz. Eskutitz, idazlan edo txostenetan gai konplexuei buruz idatzi dezaket azalpen zehatzak eginez eta garrantzitsuen iruditzen zaidana nabarmendu dezaket. Mota guztietako testuak idatzi ditzaket irakurlearentzat estilo ziur, pertsonal eta egokian.	Testu argiak estilo egoki eta naturalean idatzi ditzaket. Kasu bat eskutitz, txosten edo artikulua konplexuetan egitura logiko aurkeztu dezaket. Horrek hartzaileari ideia nagusiak ulertzen eta gogoratzen laguntzen dio. Lan profesional edo literarioei buruzko laburpenak eta kritikak egin ditzaket.